


# ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA 2018



**1918-2018**

**GIPUZKOAKO ZAINDARIA**

Arantzazuko Andre Mariaren  
Bederatziurrena  
2018

**MEZARAKO TESTOAK**

Egun bakoitzeko gaia  
Oharpenak  
Otoitzak  
Prefazioak  
Homiliarako argibideak

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

**EGUN BAKOITZEKO**

Abuztuak 31  
Ostirala

**Maria, barrutik bizi zen emakumea**  
*Erromesak:* Nafarroako Arkupe taldea

Irailak 1  
Larunbata

**Maria, Jainkoak deitua**  
*Erromesak:* Irun

Irailak 2  
Igandea

**Maria eta Jainkoaren sekretua**  
*Erromesak:* Segura, Zerain, Mutiloa, Idiazabal

**GAIK ETA ERROMESAK**

Irailak 3  
Astelehena

**Maria, Nazareten langile eta pobre**

*Erromesak: Aretxabaleta*

Irailak 4  
Asteartea

**Maria ikasle izaten ikasten**

*Erromesak: Foru*

Irailak 5  
Asteazkena

**Gurutzea: Jesusen ordua, Mariaren ordua**

*Erromesak: Oiartzun*

Irailak 6  
Osteguna

**Maria Espirituaren dohainez jantzia**

*Erromesak: Errezil, Bidania, Goiaz, Albistur*

Irailak 7  
Ostirala

**Maria Pazkotik piztuerara**

*Erromesak: Elgeta, Angiozar*

Irailak 8  
Larunbata

**Maria, bidelagun eta Ama**

*Erromesak: Legazpi*



2018

“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.

Mariarekin  
Jesusen bidean

### KONTUAN HARTZEKOAK

- 2018ko Bederatziurrena etorri da. Eskuarteetan duzun liburuxka honek goizeko Mezarako testuak eskaintzen ditu. Arratsaldeko elizkizunak beste bidea jarraitzen duenez, testuak ere erabat bereziak eta ezberdinak izango dira. Aurten ospakizunetan otoizgai eta hausnargai erabiliko dugun gaia, Maria bera izango da, Maria eta beraren bidea eta misioa. Mariaren bideak, noski, bere zentzu berrak Jesusen bideari lotuta dauka. Horregatik ikurritza: «Mariarekin Jesusen bidean goaz».
  - Honako testu hauek eskaintzen ditugu liburuxka honetan: Mezako otoitzak. Prefazioa. Irakurgaien aipamena. Monizioak. Egun bakoitzari dagokion gaia. Eta gai honi loturik, homiliarako argibide labur batzuk ere ematen ditugu. Aurreko urteetan bezala, argibide laburrak dira, gaiaren aipamen zehatza egiteko bestetarako gabe, irakurgaiaren mezua ere gaiari lotuz. Mezako otoitzak eta prefazioa nondik hartuak diren, atzeko orrian esaten dugu.
  - Meza-liburutik hartuak diren testuak, noski, itzulpen ofizialean datoz. Horiez kanpo, besteetan, etxerako itzulpena egiten ausartu gara, mesederako delakoan. Hortik kanpoko erabileraz, erabiltzen duena egiten da erantzule.
- Izan bedi guztia Jaunaren eta gure Ama Mariaren gorespenerako!*

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Lehenengo eguna  
(Abuztuak 31 - ostirala)*

**MARIA, BARRUTIK BIZI ZEN EMAKUMEA**

*Meza*

**Andre Mariaren betikoa 2**

*Irakurgaiak*

**1 Sm 1, 24-28**

**(IRAKURGAIK 236)**

**1 Sm 2**

**(IRAKURGAIK 236)**

**Lk 1, 46-56**

**(IRAKURGAIK 236)**

*Sarrera  
monizioa*

Abuztuko azken egunak Andre Mariaren Bederatziurreneko ordua jotzen du urtero Arantzazun. Eta hemen gara talde ederra asmo eder horretara bildua. Izan zaitezte denok ongi etorriak!

Aurreko urteetan, kristau-bizitzari dagozkion gai handi eta garrantzikoak aztertu eta otoiztu ditugu Bederatziurrenean. Gai horietan beti gidari eta ispilu izan dugu Andre Maria.

Aurten, ordea, Maria bera hartzen dugu gai nagusizat Bederatziurrena ospatzeko. Maria nor den eta nolako misioa izan zuen begiratu nahi dugu, hari begira guk ere Jesusen ikasle izaten ikasteko. Horregatik aurtengo ikurritza: «**Mariarekin Jesusen bidean goaz**».

Eta gai nagusi horren barruan, gaur Mariari botako diogun lehen begiradan hauxe ikusten dugu: **Maria, barrutik bizi zen emakumea** izan zela. Eta barruko bizi horrexek erakusten du Mariaren izaera berezi eta bikaina.

Arantzazuko Amaren oinetan aurkitzea, Mariari begiratu nahi diogunean, uste dut zori oso ona dela. Beraren itzalean ezagutuko dugu Jainkoaren egintza handi eta txalogarria.

Hasi gaitezen Ama Mariari kantatuz.

*Agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Maria askatasun handiaren kantari egin zuen Jauna izan bedi zuekin.**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: Jainkoak barrutik bizitzea eman zion Andre Mariari. Barruan sentiarazi zion bere hurbiltasuna. Eta Maria errukiaren kantari izan zen, pobreen alde. Mariak kantatu zuen erruki askatzaile hori eska dezagun, gu ere barrutik bizi gaitezen.**

- Jesus Jauna, Maria barrutik biziarazi zenuena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Maria zeure egintzaren kantari egin zenuena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria gure amatzat eman diguzuna. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko errukitsua,  
emaiozu zure laguntza gure izate ahul honi;  
eta zure Semearen Ama goosten dugunok,  
beronen otoitzez atera gaitzazu  
gaitzaren morrontzatik.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen*

*irakurgaia.* Ana gajoa Jaunaren aurrean ikusten dugu esker onez beterik. Bere ezina Jaunaren dohainak edertu dio. Anak bere barrua bedeinkazioz betea sentitzen du, Jaunak eman dion haurra besoetan duela. Entzun dezagun arretaz.

*Oharpena*

**1 Sm 1, 24-28** (IRAKURGAIK 236)

*Alleluia  
aurretik*

Maria, Ana berria, Magnificat abestia kantatzen. Jaunaren egintzak biziaz bete dio bere barru ezereza. Jaunaren biziak biziarazten dio bere barrua. Zutitu eta gure bihotza zabal diezaiozun Ebanjelioko hitz ederrari.

**Lk 1, 46-56** (IRAKURGAIK 236)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: Jaunak bere dohainez barrutik aberasten gaitu. Eska dezagun, pozik eta esker onez bizitzeko miraria munduko pobreenentzat. Sinesmen eta itxaropen handiz egin dezagun dei:**

**ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.**

- Jesusen Beri Onean sinesten duten guztien alde: munduko eta bizitzako gertakizunak Jainkoaren egintzatik irakur ditzaten, pozik bizitzeko.
- Triste eta barrutik hutsik sentitzen direnen alde: Jaunak maite dituela jakinik, besteak maitatzen eman ditzaten beren indarrak.



- Gaixo, ezindu edo sufrimenduan bizi direnen alde: Jaunarengan konfiantza izanez, konfiantzaren pozezko emaitza goza dezaten.
- Gure herriaren alde eta, bakearen faltan, gehien sufritzen ari direnen alde: gure arteko harremanak gozatu eta gizatu daitezen, eta pertsona guztiak libre bizi daitezen.
- Arantzazuko Amaren Bederatziurrenean aurkitzen garenon alde: Mariak bezala, gure fedea sakondu eta barruko fede-esperientzia landu dezagun.

**Entzun, Jauna, gure eskariak. Gertarazi ezazu gure bihotzetan zure egintzaren berritasuna, beti zure maitasuna kantatuz bizi gaitezen. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Zure Semearen Ama  
goresten dugunoi, Jauna,  
iguzu, opari honen eskaintzak, zure grazia lagun,  
gu ere egin gaitzala zuretzat  
betiko opari bizi.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiko horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Maria Birjina, Jainkoaren Ama,  
zerura jaso izan baita.  
Berau dugu, egunen batean aintzaz betea izango den  
zure Elizaren hasiera eta irudia;  
berau du bere itxaropen eta poz-iturri  
oraindik bidean erromes doan zure herriak.  
Ez duzu utzi hilobian usteltzen,  
zure Semea miragarririo sortu zuen amaren gorputza:  
biziaren iturria munduari eman zion gorputz garbia.

Horregatik, aingeru taldeekin batean,  
goresten zaitugu,  
pozez beterik kantatzen dugula.

*Jaunartze  
ondorengo*

Egin dezagun otoitz.  
Salbameneko sakramentua hartu dugu, Jauna,  
zure Semearen Ama gorestean;  
egizu, zure graziaren beteaz poztu gaitzela  
eta salbamena beti ugariago iritsi dezagula.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Mariaren gaia aukeratzea ez da izan aurten eman digun haizealdiaren kontua. Andre Mariaren izena daraman Santutegi batean, bigarren ikusten dugu noizbehinka Mariari begiratzea, harengana Jaiak egin duena gogoeman eta ospatzeko. Gogoan daukagu, gainera, Mariaren irudia ez dela bere onenean ikusi izan askotan. Eta uste dugu Mariaren irudia geuregana hurbiltzea ezinbestekoa dugula, Maria kristau-misterioan ongi uztartua sentitzeko. Gaur egiten dugun afirmazioak ondorengo egunetako gai osoa bildu nahi du: **Maria, barrutik bizi zen emakumea**. Afirmazio honekin Mariaren barruko esperientzia jaso nahi dugu, eta Mariaren ederrena barrutik joan zela ikusi. Barruko edertasun hori ikusten badiogu, ez dugu hainbeteko eragozpen izango kanpoko gehiegikeriak erantzeko, bai baita erantzi beharrekorik).*

Arantzazuko Andre Mariaren irudia garai batean jantzi handiz es-  
talia azaltzen zen. Gerora, berezko egoerara ekarri zen, harri mar-  
gotu dotorera. Antzeko zerbait egin beharra daukagu Mariarekin  
berarekin. Mito asko jantzi diogu gainetik, bera nor den ezkutatzet-  
raino. Maria nor da, zer da?

Maria Jesusekin batera ikusi beharra dago. Jesusen erreferentzia  
behar du Mariak, bere onean ulertzeko. Maria Jesusen misio pare-  
gabearen barruan ikusten dugu, Jainkoak hartara deituta.

Oinarrian, *humanizazio-irizpidea* erabili behar dugu. Maria gaur  
egun Judeako beste edozein emakumeren parean ikusten dugu:  
ikasi gabea, langilea, sakonetik erlijiosa, bere gurasoen usadioekin  
leial... Irakurketa harrigarri eta builoso guztiak alde batera utzi be-  
har ditugu, gauzak ongi ulertzekotan.

Baina Mariaren irudia humanizatzeak ez dio emakume honi bere  
sakontasun espirituala gutxitu behar. Normaltasuna ez da zabar-  
keria. Bizia barrutik zeraman Mariak, ez kanpoko itxura harriga-  
rrian. Maria barrutik bizi zen, eta normaltasunak Mariaren irudia  
sakonago bihurtzen du. Mariaren sekretua, Jesusena bezalaxe, ba-  
rrutik doa, Mariaren kontzientzian doa. Bere burua Jainkoaren zer-  
bitzura jartzen duenean, bereaz erantzirik, hor azaltzen da barrutik  
bizarazten duen sekretua, fedearen sekretua.

Magnificat abestiak ederki erakusten du Jainkoak Mariaren bihot-  
zean gorde duen sekretua. Gizadi osoarentzat eta, bereziki, pobre-  
nentzat sortu Jainkoak bere semea mundu honetara. Mariak, be-  
re barruan gertatu zaiona, munduaren askatasunerako azaltzen  
du. Mariak barrutik darion bizia kantatzen du (*Ik. Ebanj.*).

Maria ez zen neurritz kanpokoan izan kanpotik, baina bai barrutik.  
Espirituak haziarazi zuen Jainkoaren neurrietara. Egin dezakegun  
ariketa egokiena, Mariaren barruko aztarrenak aztertzea da. Lehe-  
nengo irakurgaiko Anaren esperientzia bizi izan zuen Mariak, Jau-  
nak eman zion semearekin. Jesus, Jainkoaren dohaina izan zen,  
eta dohain bezala jaso zuen Mariak. Mariak esker onez bizi izan  
zuen Jainkoak barruan piztu zion bizi berria (*Ik. 1. irak.*).

Eukaristia ospatzen ari gara. Jainkoaren egintza osoa ogi egina  
sartzen da gure bihotzera, gu ere, Maria bezala, barrutik bizi gaite-  
zen. Bizi, izan ere, barrutik bizi garen adinean bizi gara, ez gehiago.  
Esker onez ospa dezagun Eukaristia.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

*“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.*

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Bigarren eguna  
(Irailak 1 - larunbata)*

**MARIA, JAINKOAK DEITUA**

*Meza*  
**Andre Mariaren betikoa 1**

*rakurgaiak*

**Is 7, 10-14**

**(IRAKURGAIAK 619)**

**Sal 39**

(IRAKURGAIAK 619)

*Hasierako  
monizioa***Lk 1, 26-38**

(IRAKURGAIAK 620)

Bederatziurrenak Mariari begira jarri gaitu, jarraitzailearen bizimoldea harengan ikusi eta ikasteko. «Mariarekin Jesusen bidean goaz», horixe dugu aurtengo ikurritza. Maria daukagu Jesusi jarraitzen ikasteko irakasle.

Atzo esan genuen Maria barrutik bizi zela, eta barruko sekretu hartatik zetorkiola beste guztia. Baina, sekretu horrek izan zuen bere iturria, eta horixe da gaur azertu behar duguna.

**Maria, Jainkoak deitua izan zen.** Eta hasierako dei horren segidan etorri zen Mariaren ibilbide guztia. Mariaren bizitza eta misioa ulertu ahal izateko, Jainkoaren hasierako dei horretara bildu behar dugu. Dei horretatik hartzen du sentidua beste guztiak.

Presta gaitzen, Mariaren ondoan egin behar dugun ospaketa hau behar bezala burutzeko. Fedean bat egin dezagun. Lagun diezaiogun elkarri Jaunaren dohaina ospatzen.

Has gaitzen kantuz eta alabantzaz.

*Agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

*Damu  
otoitza*

**Maria bere deiez sagaratu zuen Jauna, izan bedi zuekin!**

**Senideok: Eukaristian Jaunak bereganako deia egiten digu. Maria bezala gu ere beretzat aukeratu gaitu Jaunak. Bere errukiaren eskaintzaz sagaratzen gaitu, Erreinua zerbitza dezagun. Ospakizunari ekiteko, ireki dezagun gure barrua Jaunaren deia entzuteko. Eska diezaiogun Jaunari, barrua berritzen eta aberasten digun errukia.**

- Jesus Jauna, zeuregana dei egiten diguzuna. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Aitaren maitasunaren ezaugarri zaituguna. Kristo, erruki.

- Jesus Jauna, Maria Espiritu Santuaz sagaratu zenuena.  
Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko Jauna, emaguzu zure zerbitzarioi  
gorputz-arimetako osasuna;  
eta Maria beti Birjina dohatsua  
laguntzaile dugula,  
atera gaitzazu bizitza honetako ilunaldietatik  
eta eraman zeruko zorionaren jabe izatera.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen  
irakurgaia.  
Oharpena*

Akazek ez du Jaunaren promesan sinetsi nahi; nahiago du bere indarretan uste on izan. Baina Jaunak bere kabuz emango dio ezaugarria. Ezaugarri hori gero Mariari aginduko zaiona izango, Jesus.

*Alleluia  
aurretik*

**Is 7, 10-14** (IRAKURGAIK 619)

Maria Nazaretoko etxean Jaunak deitua. Harriduraz eta bihotz zabalez jasotzen du egiten zaion deia. Obedientziaren bidean abiatzen da Maria. Zutitu eta entzun dezagun arretaz Ebanjelioko Hitza.

**Lk 1, 26-38** (IRAKURGAIK 620)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Jaunak beretzat aukeratu gaitu, eta bere erreinua zerbitzatzera bidaltzen gaitu. Eska dezagun Mariaren bihotz handia dei hori jasotzeko. Usterik onenaz kanta dezagun:**

**ENTZUN, ARREN, JAUNA.**

- Munduko gizon-emakume guztien alde:  
Jauna beti deika ari zaiela oharturik, dei hori aditu eta onartu dezaten.
- Beren bizitza egarriz eta bila bizi dutenen alde:

Jaunaren deia entzunez, beren barruko bilaketak argitasuna jaso dezan.

- Beren bizitzari ezer onik ikusten ez diotenen alde; gaixorik, bakardadean, sufritzen ari diren guztien alde: bizi duten sufrimenduan Jauna gertuan eta deika suma dezaten, bakean bizitzeko.
- Gure gazteen alde: beren bizitzan Jaunaren deia entzuten asma dezaten, beren gizatasuna bete-betean garatu ahal izateko.
- Arantzazuko Amaren Bederatziurrena egiten ari garen guztion alde: Mariak bezala, gure bihotza zabal pranta dezagun, Jaunaren deia entzun eta segitzeko.

**Jaso, zeruko Aita errukiorra, zure seme-alaben oihuak. Zeuretzat egin eta zeuregana deitzen gaituzunez gero, egizu bihotz handiz joka dezagula. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaun berpiztuaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Jauna, entzun zure zintzoek  
egiten dizkizuten eskariak eta jaso haien eskaintzak,  
Maria beti Birjinaren izenean egiten dizkizute eta;  
atsegingarri izan daitezela Zuretzat  
eta ekar diezaiotela zure herriari  
zure babesa eta laguntza.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen  
Zuri eskerrak ematea, Aita guztia santua.

Maria Birjinak,  
atsekabearen misterioan parte hartuz,  
salbamenaren eta goi-esperantzaren ezaugarri

bezala argi egiten baitu  
berari babesa eskatzen dioten gaixoentzat;  
eta begiratzen dioten guztiei,  
zure nahia onartzen erakusten die  
eta Kristorekin osokiago bat izaten,  
hark, gureganako maitasunez,  
gure gaitzak jasan baitzituen  
eta gure saminak sufritu.

Beraren bitartez,  
aingeru eta goiaingeruek eta zerutar guztiek  
zure aintza ospatzen dute pozez elkaturik.  
Onar ezazu, Jauna,  
haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere  
geure kantu-hotsak.

*Jaunartze  
ondorengo*

Egin dezagun otoitz.  
Zure Ama Birjina Mariaren oroipena eginez,  
pozez beterik jaso dugu, Jauna,  
salbatzen gaituen sakramentua,  
zure Seme bakarraren gorputz-odolak;  
berak eman diezazkigula  
oraingo eta betiko bizitzarako dohainak.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Mariaren historia osoa Jainkoaren deiak jartzen du abian. Mariarengan ikusten dugun guztiari sentidua eta edukia ematen diena Jainkoaren deia da. Eta dei horri Mariak eskaintzen dion obedientzia. Mariak barru zabalez erantzuten dio dei horri. Gai hau oso oinarrikoa dela esan behar. **Maria Jainkoak deitua**, esaten dugu gaurko gaian. Oso inportantea da Jainkoaren deia bere onean azpimarratzea eta Mariaren obedeintziak erakusten duen askatasuna ere azpimarratzea. Obedientziaren askatasun-sena ez da askotan bere onean ulertzen. Hona apunte batzuk).*



Maria emakume deitua da. Jainkoak dei egiten dionean, orduan hasten da dena. Ebanjelioek eman dizkiguten haurtzaroko kontakizunak hustu egin behar ditugu, oinarriko mezura iristeko. Kontakizun horien enkantoa galduko dugu, baina fedearen sakontasuna irabazteko. Eta Mariaren bokazio berezia askoz hobeto ulertzeko.

Jainkoaren esanari erakusten dion obedientzia librea dago oinarrian. Obedientzia oso horretan onartzen du Mariak ematen zaion misioa: Jesusen ama izatea. Eta une horretatik aurrera, bere seme horrena izango da osorik. Obedientzian hasitako bidea obedientzian hazi eta burutuko da.

Mariaren bidez- kontra jokatzeko du Akazek lehenengo irakurgai. Ez du bere ustea Jainkoaren promesan oinarritu nahi; nahiago du bere indarretan uste on izatea. Baina, Jainkoak Akazen gogorkeria apurtuko du bere dohainez, Mariaren obedientziaren bidez (*Ik. 1. irak.*).

Zer da, baina, obedientzia hau? Jainkoaren hitza aditu eta onartzeko fedea da. Jainkoaren ekimenari leku egiten dion esperantza da, Jainkoaren esku utzi baitu bere etorkizuna. Eta Jaunaren nahiari dena entregatzeko maitasuna da. Azken batean Bibliak obedientzia esaten dion horri, guk askatasuna eta maitasuna esango genioke, bereaz husten den maitasunaz ari baikara. Jainkoak, eman dion misioaren arabera aldatzen du Maria.

Argi honetan sakondu behar da Anuntziazioko pasadizoan. Osagai erantsiak erantzi, eta barne-muina gelditzen da: Jainkoaren deia eta Mariaren erantzun fededuna. Mariak askatasun handia erakusten du bere obedientzian. Bere fede osoa eskaintzen dio Jainkoari, bere zalantza guztien gainetik (*Ik. Ebanj.*).

Bokazio horren argitan, deiaren argitan, misioa berezia delako, obedeintziak sekulako sakontasun berezia hartzen du. Garbi ikusten dugu, inoiz ulertuko ez dugun misterioaren atarian daudela. Harridura handian, tartea utzi behar diogu Misterioari. Mariaren bihotz fededunak bizi duen isiltasuna ulertu behar dugu. Berak ez du arrazoietara biltzen misterioa. Bere guztia Jainkoaren eskuetan uzten du. Maitasunaren obedeintziak gidatzen du bere bokazioan.

Gu ere misterioaren bihotzean aurkitzen gara une honetan. Jainkoa daukagu aurrean. Jainkoarekin intimitatean aurrez aurre gaude. Bere deia egiten digu. Ireki dezagun gure barrua, indartu gure fedea eta eman dezagun obedeintziaren askatasunezko baietza.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Hirugarren eguna  
(Irailak 2 - igandea)*

**MARIA ETA JAINKOAREN SEKRETUA**

*Meza*

**Maria Birjina, goi-arduraren Ama**

*Irakurgaiak*

**Sir 3, 19-21.30-31**

(IRAKURGAIK 167)

**Sal 67**

(IRAKURGAIK 167)

**Ef 1, 3-6.11-12**

(IRAKURGAIK 721)

**Mt 1, 18-23**

(IRAKURGAIK 722)

*Sarrerako  
monizioa*

«Mariarekin Jesusen bidean goaz» ari gara esaten egun hauetan. Mariaren barne-bideak ezagutzen dihardugu. Zer gertatu zen Mariarengan Jainkoak dei egin zionetik?

Mariak bere arruntasun eta bere egunerokotasun txikian sekretu handia zeraman barnean. Mariak bere etxean ikasi zuen Israelen Jainkoa maitatzen. Jainko horrek lan gorde eta handia egin zuen Mariaren bihotz txiki eta apal hartan. Mariak berak ez zuen asko pentsatzen zer ari ziztaion Jainkoa egiten!

Bai, Jainkoak zeukan Mariaren bihotzeko giltza. Egun batean Mariak berak ulertuko zuen Jainkoaren egintza. Mariak, oraingoz, Jainkoaren esku uzten du bere bizitza. Jainkoak aukeratu zuenetik, Maria Jainkoaren esku bizi izan zen oso-osorik. **Maria eta Jainkoaren sekretua** izango da gaurko gaia. Ulertuko bagenu, guk ere Jainkoaren sekretua daramagula geure bihotzean! Halaxe da ba!

Bat eginik, kantuz ekin diezaiogun ospaketari.

*Agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Maria aukeratu eta bere maitasunaren neurrira moldeatu zuen Jauna, bego zuekin!**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: Jainkoak Nazaretoko emakume normal bat hartu, aukeratu, eta bere maitasunaren sekretua txertatu zion bihotzean. Gu ere, gizon eta emakume arruntak, Jainkoak bere maitasun-sekretua jasotzeko aukeratu gaitu. Ireki diezaiogun bihotza Jainkoari. Presta ditzagun gure bihotzak Jainkoarengana jo eta errukia eskatuz.**

- Jesus Jauna, Mariaren sekretu gordea izan zinena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Mariaren bidez gure bedeinkazio zaituguna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Mariaren apaltasunean Jainkoaren maitasuna erakutsi diguzuna. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko Jauna, inoiz huts egiten ez duen  
zure arduraren esku jartzen gara konfiantza osoz,  
eta Maria Birjina zure Semearen Amaren otoitzez  
eskatzen dizugu,  
urrun dezazula guregandik gaitz oro  
eta eman diezazkiguzula  
bizitza honetan eta gerokoan  
lagungarri izan ditzakegun dohainak.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen  
irakurgaia.*

*Oharpena* Apaltasunaren gorespena da lehenengo irakurgaia. Harroari bere harroke-  
riak ixten dizkio bide guztiak. Mariaren apaltasun bedeinkatua ulertzeko on-  
gi datorkigu irakurgai hau. Entzun dezagun.

**Sir 3, 19-21.30-31** (IRAKURGAIK 167)

*Bigarren  
irakurgaia.  
Oharpena*

Efesotarrei idatzitako gutuna, bedeinkazio-kantika eder batekin hasten da.  
Jainko bedeinkatuak bere bedeinkazio osoz edertu gaitu. Mariaren eta gure  
sekretua Jainkoaren maitasuna da.

**Ef 1, 3-6.11-12** (IRAKURGAIK 721)

*Alleluia  
aurretik*

Mariaren gorputza Jainkoaren maitasun handiak hartzen du. Harrezkero, Je-  
sus izango da Mariaren bihotzeko altxor eta sekretu handia. Zutik, jar gaiten-  
zen prest Jesusen hitza entzuteko!

**Mt 1, 18-23** (IRAKURGAIK 722)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: gure eskariak Jaunari aurkezteko unea dugu.  
Otoitz egin dezagun premian aurkitzen diren guztientzako  
Jainkoaren maitasuna eskatuz. Jesusen presentzia askatzai-  
leak biziarazi gaitzala denok.**

**ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.**

- Eliztarren alde; Jainkoaren maitasuna ezagutzen dutenen alde; Jainkoak maite dituen gizon-emakume guztien alde... (*utzi isilunea*).
- Munduko herri pobreen alde, gure euskal gizartearen alde, bakerik eta barne-pozik gabe bizi direnen alde...
- Lanik gabe, beharrea, bakardadean, zapalduta bizi direnen alde; sufritzen duten guztien alde...
- Familien alde, gure etxeetako gaixoen alde, esperantza galdu dutenen alde, tratatu txarrak nozitzen dituztenen alde...
- Hemen, Amaren inguruan elkartuta gaudenon alde... (irratiz gurekin direnen alde...) gure senide eta adiskideen alde...

**Eskerrak, Aita ona, zure maitasunaren sekretua adierazi diguzulako. Ibil gaitezela zureganako bidean eta goza dezagula zure dohaina. Gure ondoan senti zaitzagula beti. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Onar, Jauna, Elizak eskaintzen dizkizun dohainok,  
hauen bidez eta zure Semearen Ama onak lagundurik,  
zure errukia iritsi dezagun  
eta uneoro lagunduko digun zure grazia aurki dezagun.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen,  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiko horri,

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  
Zure asmo arduratsuan,  
Maria Birjina dohatsuak  
munduaren Salbatzailea erne baitzuen  
Espiritu Santuaren egitez.

Galileako Kanan,  
bere Semeari eskaria egin zion senar-emazteen alde,  
lehen ezaugarria burutu zezan:  
ura ardo bihurtu zen, mahaikideak poztu ziren  
eta ikasleek bere Maisuarengan sinetsi zuten.

Orain, zure Semearen eskuinean  
Erregin bezala eseririk,  
Eliza osoaren beharrak zaintzen ditu  
eta gurutzean Jesu Kristok haren esku  
utzi gintuen bakoitzarentzat  
grazi emaile eta ama arduratsu da.

Horregatik, aingeru eta santu guztiekin,  
zure aintzaren gorespena  
beti eta beti kantatzen dizugu.

*Jaunartze  
ondorengo*

Jainko errukiorra,  
zure mahai santuan hartu dugun  
sakramentuaren eraginez  
eta Maria Ama arduratsuen laguntzaz,  
egizu, bila ditzagula beti  
zure erreinua eta zure salbamena,  
lurrerako behar ditugun laguntzak geurekin ditugula.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Jainkoak Maria aukeratu zuenean, ez zen Nazaretoko sukalde hartan bista-  
ra ezer aldatu. Baina, a zer aldaketa handia Mariaren bihotz apalean!  
Gaurko gaiak Mariaren bihotzeko sekretu horretara sarrarazi nahi gaitu.  
**Maria eta Jainkoaren sekretua.** Mariak, bere apaltasunean, ez zuen Jain-  
koaren dohaina bere probetxurako erabili. Dena Jainkoaren esku utzi zuen.*

*Mariak beti gordean eraman zuen maitasunaren sekretu handia).*

Mariak bere etxeko giroan zeuzkan bere sustraiak. Bere gurasoen fedean hezia, zenbat aldiz entzun ote zuen israeldarren otoitz hura: «Entzun, Israel; zure Jainkoa bakarra da. Maitatuko duzu Jainko Jauna zeure bihotz osoarekin...». Maria emakume xume eta normala izan zen beste emakumeen artean.

Baina normaltasunak ez dio Mariari bere goitasuna kentzen. Maria ulertzeko azken giltza Jainkoaren bihotzean dago. Eta giltza hori ulertzeko ez dugu behar egintza apartekorik. Nahikoa da Jainkoaren lan gordea ulertzea. Jainkoak Maria bere misiorako prestatzen du. Misioa bakarra denez, prestaketa ere bai. Inork inoiz ezin zuen susmatu zer ari zen gertatzen Nazaretoko sukalde ilun hartan.

Horrela gertatu behar zuten gauzek, Mariaren sekretua Jainkoarengan gordea baitzegoen, jakinmin guztietatik gordean. Mariak berak ere ez zuen asko pentsatzen zer ari zitzaion gertatzen. Aski da oraintxe entzun dugun ebanjelioa aztertzea. Maria isilik dago Jainkoak egiten duenaren aurrean. Erabat Jainkoaren esku baitauka bizia utzita. Josek ere ez du ulertzen (*Ik. Ebanj.*). Jainkoaren maitasunaren neurrigabetasunaren arabera egina zegoena, pixkanaka joan zen azaltzen. Txikiek ulertuko zuten bere garaian.

Mariari, umearen bihotz txiki eta hartzailea hasieratik eman zitzaión. Lehenengo irakurgaiari aipatu den apaltasunak aberasten zuen Mariaren bihotza. Jainkoaren bedeinkazioa ez zuen harrokeriarako erabili (*Ik. 1. irak.*).

Mariak bere proiektuak Jainkoaren esku uzten zituen. Bere barruko egia nagusiak ez zion handikeriarik piztu. Ez zuen Jainkoaren maitasuna bere probetxura erabili. Dena Jainkoaren esku utzi zuen.

Ez zuen bere burua bere eskemen arabera ulertu nahi izan. Jainkoak une bakoitzean ematen ziona biziz, haren esku utzi zituen bizitzako une eta gertaera guztiak. Jainkoaren sekretua zeraman bihotzean!

Gu guztiok ere Mariaren bihotzeko sekretu horretan izan gara bedeinkatuak. Bigarren irakurgaiari entzun dugun bedenklaizio-kantu eder horretan ederki argitzen da eman zaigun maitasun aparta. Sekretu handi baten ezagutzailerak gara! (*Ik. 2. irak.*).

Oraintxe bertan ere, Jainkoak gure bihotza bere presentziaz betetzen du. Eukaristian, kanpotik uler ez daitekeen miraria gertatzen da. Jainkoak bere maitasunaren sekretua kontatzen digu!

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Laugarren eguna  
(Irailak 3 - astelehena)*

**MARIA, NAZARETEN LANGILE ETA POBRE**

*Meza*

**Maria Birjina, pozaren Ama**

*Irakurgaiak*

<b>Sir 3, 3-7</b>	<b>(IRAKURGAIAK 20)</b>
<b>Sal 127</b>	<b>(IRAKURGAIAK 20)</b>
<b>Mt 2, 13-15.19-23</b>	<b>(IRAKURGAIAK 20)</b>



### *Hasierako monizioa*

Atzo, adiskideok, Mariak bere bihotzean zeraman Jainkoaren sekretuari begiratu genion. Edo, hobeto esateko, Jainkoaren sekretua bere barnean zeraman Mariari begiratu genion.

Gaur, baina, Nazaretoko sukalde hartara biltzen gara, Maria lanean eta pobrezian ikusteko. Hain ezerez ikusten du bere burua, Mariaren galdera harridurazkoa da: «Hau zergatik gertatu zait niri?». Ez gabiltza beste munduko egoera idiliko batean, Nazaretoko egunerokotasun pobrean baizik.

**Maria, Nazareten langile eta pobre:** horixe dugu, beraz, gaurko gaia. Baina, giro horretan, nola bizi izan zuen eta nola erakutsi zion Jesusi bizitzen Jainkoaren esperientzia! Beti Jainkoaren eskuetan konfiantzaz.

Mariarekin batera ospa dezagun Jainkoak erregalatzen digun presentzia. Fedean bat egin dezagun eta ekin diezaiogun sarrerako kantuari. Bizitzarako argi izan dakigula ospakizun hau.

### *Agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Maria bere dohainez harritu eta liluratu zuen Jauna bego zuekin.**

### *Damu otoitza*

**Senideok: Mariak eguneroko pobrezian eta lanean jakin izan zuen bere bizia Jainkoaren eskuetan uzten. Guk ere bai ospakizun honen hasieran. Geure barruko ahuldade handitik dei egin diezaiogun Jesus Jaunari, Aita onaren erruki berritzailea eskatuz. Izan dezagun konfiantza handia.**

- Jesus Jauna, Mariaren ondasun bete eta bakarra. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Nazaretoko sukaldean eta Mariaren eskutik Jainkoa ezagutu zenuena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gure pobrezia aberasteko Nazareten pobre izan zina. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko Jauna, Maria santuaren bidez  
Jesu Kristo gure Jauna emanaz,  
zure herria poztu zenuen;  
egizu, Birjina beraren laguntzaz,  
poz guztiaz bete gaitezela,  
gure anai-arrebak poztu ahal izan ditzagun.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen*

*irakurg.  
Oharpena*

Ebanjeliokoan, Jesus pobrezia-aren bideetan ikusiko dugu bere gurasoekin. Lehenengo irakurgai honek Jesus bere gurasoak maitatzen erakusten digu. Haiengandik ikasi zuen Jainkoa maitatzen.

**Sir 3, 3-7** (IRAKURGAIK 20)

*Alleluia  
aurretik*

Orain pobrezia-aren bideetan erromes ikusten dugu Mariaren seme Jesus. Baina bideen pobrezia ez zion Mariari bere konfiantza gutxitu. Zutitu eta bihotz zabalez entzun ditzagun Ebanjelioko hitzok!

**Mt 2, 13-15.19-23** (IRAKURGAIK 20)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: eskariak egiteko garaia da. Mariaren laguntzaz eta Jesus bitarteko dugula, eska dezagun bizi berria gizon-emakume guztientzat. Eska dezagun bizi-poza pobreentzat. Kanta dezagun:**

**GURE OTOITZA ENTZUN, JAUNA.**

- Eliza osoaren alde:  
pobrezian eta konfiantzan bizitzen ikas dezan, Jainkoaren on izanez.
- Gure herriaren alde:  
gure eguneroko arazoaren artean ere, senidetasunez eta on eginez bizitzen jakin dezagun.

- Sufritzen duten guztien alde, era bateko edo besteko ahuldadean bizi diren guztien alde:  
Mariari begira, besteen sufrimendua gozaten saia daitezzen.
- Gure familien alde:  
famili bizi eta elkarri laguntzeko eta gazteenak gizatasunean eta fedean hezitzeko eskola bihurtu dezagun.
- Amaren Bederatziurrenean hemen bildu garenon alde:  
egunerokotasuna duintasunez janzten asma dezagun, Jainkoa gurekin dugula jakinik.

**Jauna, Zuk indartzen gaituzu geure ahuldadean eta Zuk argitzen dituzu gure bideak. Emaguzu zure Erreinuko poza, eguneroko bizitzan leialki zerbitza zaitzagun. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainera*

Hartu, Aita guztiz santua,  
Birjina txit santuaren oroigarria eginez  
pozik aurkezten dizugun gure opari behartsua;  
eta egizu, Kristoren opariarekin bat egite hau  
poz-iturri gerta dakigula mundu honetan  
eta betiko salbamen beste munduan.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen  
Zuri eskerrak ematea  
eta bedeinkapen eta alabantzazko  
gorazarrea eskaintzea,  
Jainko ahalguztidun betiko horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, munduaren pozbide izateko,  
Maria Birjinaren sabel garbian  
pozez sortu nahi izan zuen.  
Maria, Semearen gurutze ondoan  
samin ikaragarriak sufritu ondoren,  
Zuk poztu zenuen  
piztueraren itxaropenaz.

Apostoluekin otoitzean ari zela,  
sutsu eskatu zuen  
eta konfiantzaz itxaron  
pozaren eta bakearen Espiritua.  
Eta orain, zerura jaso dagoelarik,  
ama-maitasunez pozten ditu  
fedez dei egiten dioten guztiak,  
Jaunaren egun argitsua piztu bitartean.

Horregatik,  
aingeru eta santu guztiekin,  
zure aintza goستن dugu kantatuz:

*Jaunartze  
ondorengo*

Hartu ditugun pazko-sakramentuez indarturik,  
eskatzen dizugu, Jauna:  
zure Semearen Amaren oroipena  
ospatu dugun guztiok,  
bekatua hilarazi dezagula egunero  
eta, huts egiten ez duen esperantzan sendo biziz,  
piztueraren mezua iragar dezagula.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Mariak Jainkoaren sekretua zeraman bihotzean, egia da. Baina horrek ez du esan nahi horregatik dena handi eta bistoso izan zenik Nazaretoko sukaldetan. Egunerokotasuna langilea eta pobrea izan zen etxe hartan. Beharra pasatu zuten, seme Jesus hezi zuten, Jainkoa maitatu zuten eta maitatzen erakutsi zuten. Behar guztien erdian, baina, Mariak konfiantza eta fede handia erakutsi zituen. Bere semearen auonomia errespetatzen ikasi zuen. Ma-*

*ria, Nazareten langile eta pobre. Edozein sukaldetan bezala).*

Maria deituak esker onez eta apaltasunez galdetzen zuen: «Zergatik hau niri?». Bere burua hain ezerez sentitzen zuen, Galileako zoko hartan langile behartsu. Askotan idealizatu dugu Nazareteko familiaren bizitza, baina ez zen batere idilikoa izan. Justu irauteko ematen zien etxeko ekonomiak. Behin baino gehiagotan sortuko ziren arazoak eta gatazkak, santutasunak ez baitu psikologia behartzen.

Ejiptora ihes egin eta handik itzultzean, Nazareteko errealitate apalean ikusten ditugu Maria, Jose eta Jesus. Eguneroko lanetan, eguneroko ogia irabazten. Hantxe hazten. Hantxe konfiantza ikasten (*Ik. Ebanj.*)

Maria Jesusen ama eta irakaslea izan zen. Bere seme hura hezitzea izan zuen lanik handiena. Bere herriaren historia santua irakatsi zion. Jainkoarekiko Ituna ere bai. Mariak zenbat maite zuen Jainkoa! Nolako pozez eraman zuten Mariak eta Josek Jerusalem errones! Jesusek ikusi zuen bere gurasoek nolako zirrara sentitzen zuten Jerusalem urrutitik sumatzean. Baina Mariak ez zion doktrina bat komunikatu. Mariak biziz hezi zuen bere semea. Jainkoaren gauzak adieraztean, bazekien hitz gutxikoa izaten, baina asko azaltzen.

Lehenengo irakurgaiak adierazi duen harreman errespetuzko hori bizi izan zen Nazareteko etxean. Jesusek maite zituen bere gurasoak. Hantxe ikasi zuen giza harremanaren edertasuna (*Ik. 1. irak.*).

Familia hura pobrea zen. Izango ziren zer janik ez zuten egunak. Eta Mariak uste ona azaltzen zuen. Izango ziren notizia txarrak jasotzen zituzten egunak. Mariak itxaropena erakusten zuen. Mariak, bere pobrezian, bazekien Jainkoaren esku utzi behar zuela bere bizi eta bere semearena. Mariak ikusi zuen bere semea barrutik bizitzen ari zela. Autonomia hura errespetatu egin behar zuen. Jose hil zenean, alargun gelditu zen bere semearekin. Nolako harremana izan ote zen biena!

Mariak kobratu gabe maitatu zuen. Behar zen unean jakin izan zuen erretiratzen. Gordean bizi izan zen. Nazareten langile eta pobre!

Eukaristia ospatzera goaz. Jainkoak bere dohainez pozten digu eguneroko gure bizitza. Beharrak izango ditugu, baina konfiantzak eutsiko digu duintasunean.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Bosgarren eguna  
(Irailak 4 - asteartea)*

**MARIA IKASLE IZATEN IKASTEN**

*Meza*

**Maria errukizko erregina eta ama**

*Irakurgaiak*

**Gn 12, 1-7**

**(IRAKURGAIK 715)**

**Sal 44**

**(IRAKURGAIK 716)**

**Mk 3, 31-35**

**(IRAKURGAIK 772)**

*Sarrerako  
monizioa*

Bederatziurreneko bosgarren egunak ere Mariari begira jartzen gaitu. Mariaren eskutik baikoaz Jesusen bidean. Mariagandik ikasi nahi dugu Jesusen segizioan bizitzen.

Mariaren bokazioa zertan gauzatu zen begiratzen badugu, gauza bat nabarmentzen da: Mariak, Jesusen amak, Jesusen **ikasle izaten ikasi** behar izan zuela. Jesus berea bazuen ere, Aitaren eskuetan utzi behar izan zuen, konfiantzaz eta sinesmen handiz. Mariari, gordeta bizitzea zegokion, eta bere semea askatu egin behar izan zuen.

Bide horretan nahi gaitu gu ere Jainkoak, Jesusen ikasle apal. Guk ere, eguneroko ariketan, ikasi beharra daukagu Jesusen bidea egiten. Horrela eraikiko dugu Jaunaren erreinua gure gizartean. Mariak berak eramango gaitu ikasle izatearen bidetik. Bera dugu lagun.

Besterik gabe, zutik jarri eta, Arantzazuko Amaren babesean, ekin diezaiogun ospakizunari!

*Apaizaren  
agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Bere presentzia erakarlez bere ikasle egin gaituen Jesus Jauna izan bedi zuekin!**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: Jesusen ikasle eta jarraitzaile izateko deia jasogen genuen bataioan. Eta ospakizun honen hasieran, eta Mariari begira, gure segizio-bokazioa berritu nahi dugu. Segizio leialaren konpromisoa berri dezagun. Jo dezagun errukitara eta eska diezaiogun bihotz berria Jaun errukitsuari.**

- Jesus Jauna, zure ikasle izateko poza eman diguzuna. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zure bidea egiteko bihotz adoretua ematen diguzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Mariaren jarrera erabat esaneko egin zenuena. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Muga gabeko errukia duzun Jainkoa,  
egizu, Maria Birjina, errukizko Amaren laguntzaz,  
zure nahia ezagutu dezagula lurrean,  
zeruan zure aintza iristeko.  
Zure Seme.

Abrahamen historia Jainkoaren deiarekin hasi zen. Eta Abrahamek Jainkoak esandako  
*Lehen irakurgaia.* bidea egin behar izan zuen. Mariak ere obedientziaren prozesu bera biziko  
du. Entzutekoa da eta entzun dezagun!  
*Oharpena* **Gn 12, 1-7** (IRAKURGAIK 715)

*Alleluia  
aurretik*

Mariak Jesus sortu zuen mundura, baina obedientziaren argitan bere semea-  
ren ikasle izaten ikasi behar izan zuen. Berri On horri dagokion festa egin  
dezagun: Ebanjelio-liburua jaso, intzentsuz lurrindu eta aleluiaka jasoko du-  
gu Hitza!  
**Mk 3, 31-35** (IRAKURGAIK 772)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: Jainkoaren Hitzak garbitu gaitu eta maitasuna-  
ren mezua entzun dugu pozik. Maitasuna eska dezagun be-  
hartsu guztientzat. Kanta dezagun:**

**ENTZUN, JAUNA, ESKATZEN DIZUGU.**

- Eliztarren alde; Berri Ona zailtasunetan bizi dutenen al-  
de; Jesusen ikasle guztien alde... (*Isilunea*)
- Ebanjelioaren pozik eta inolako zorionik ez daukaten he-  
rrien alde; gerran bizi diren herrien alde; gure herriaren  
alde... (*Isilunea*)
- Gaixo, ezindurik, kartzelan, lanik gabe, beldurrez, bakar-  
dadean sufritzen duten guztien alde; barkatzen asmatzen



ez dutenen alde... (*Isilunea*)

- Beren burua zikin eta kutsatua ikusten duten guztien alde; inolako ilusiorik ez daukatenen alde; barkazioaren beharrean daudenen alde... (*Isilunea*)
- Hemen, Amaren inguruan elkartuta gaudenon alde... [irratiz gurekin direnen alde...] gure senide eta adiskideen alde... (*Isilunea*)

**Eskerrak, Jauna, zure semearen segiziorako deia egin diguzulako. Emaiezu behartsuenei zure Berri Onaren dohain berritzailea. Garbi gaitzazu segizioa leial bizitzeko. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Hartu, Jauna, zure herriaren dohainok eta, Maria Birjina errukizko amatzat ohoratzen dugunoi, emaguzu gure senideekin errukitsu izatea, zure errukia iritsi dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen, nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Aita guztiz santua, eta zure handitasuna gorestea Maria Birjina dohatsuaren oroipena egitean.

Bera da errukizko Erregina: zure errukia beste inork ez bezala ezagutu ondoren, berarengana biltzen direnak maitez onartzen ditu eta deitzen diotenak entzuten.

Bera da errukizko Ama: beti prest dago  
bere seme-alaben eskariak entzuteko,  
haintzat onginahia eskatu  
eta bekatuen barkamena lortzeko.

Bera da jainko-maitasunaren zabaltzailea:  
bere Semeari atergabe guretzat otoitz egiten ari da,  
haren graziak gure beharra aberastu dezan  
eta haren indarrak gure ahultasuna indartu.

Beronen bitartez, aingeru eta goi-aingeruek  
gurtzen zaituzte beti,  
zure aurrean pozez elkaturik.  
Haien gorespenekin utziguzu, arren,  
bat egin dezagula guk ere  
zure gorespena kantatzeko.

**Jaunartze  
ondorengoa**

Eukaristia honekin janariturik,  
eskatzen dizugu, Jauna,  
hots egin dezagula beti zure errukia  
Maria Birjina dohatsuarekin batera,  
eta senti dezagula beraren babes,  
bekatarien errukizko Erregina  
eta behartsuen Ama errukiorra  
deitzen diogunez gero.  
Jesu Kristo gure Jaunaren.

**Homilia**

*(Mariak bere obedeintzian bizi izan zuen prozesua aztertu nahi du gaurko gaiak: **Maria ikasle izaten ikasten**. Maria bere semeari begira bizi zen, baina iritsi zitzaion une bat, zeinetan beste era batera begiratzen ikasi behar izan zuen. Bere seme hura ez zuen gehiago «bere» izango, Jainkoari zor zitzaion. Jesus libre utzi behar izan zuen, bere bidea egin zezan. Eta beste era bateko ama izaten ikasi zuen, bere semearen ikasle eginez. Gordean, bere obediencia isilean, burutu zuen bere bokazioa).*

Mariak bazekien Jainkoaren nahiari antzematen. Bere semearekiko nahia ere azalduko zen. Egun batean Joanengana irten zen Jesus. Eta handik itzultzean Mariak ordua zela ulertu zuen. Ez zuen ezer komentatu beharrik izan. Besarkatu eta joaten utzi zion. Haren beharra sentitzen zuen; baina bazekien ez zuela berea. Jainkoaren eskuetan utzi zuen uste onez.

Abrahami bezala, Mariari ere beretik irtetea eskatu zitzaion, eta Jaunak esango zion bidean joatea. Bere amatasuna beste era batera bizi behar zuen, Jaunaren nahia eginez. Ez zuen bere ondasuna, bere seme Jesus, beretzat gorde behar. Mariak prozesu luzeari ekiten dio (*Ikus 1. irak.*).

Eta harrezkero, Mariak ikasle izaten ikasi behar izan zuen. Haragiz semea zuena libre utzi eta harekiko harreman berria landu behar! Baina ikasle zela eta, ez zen Jesusekin ibili. Ez zen haren predikaziora bildu. Bere ama izatea alde batera uzten ikasi zuen eta Erreinuako amatasun berrian sartu zen. Alegia, Erreinuaren sentiberatasun eta afektibitate berria ikasi zuen, bere burua entregatuz. Jainko Aitak ezarri zion lekua ezagutu eta onartu zuen.

Eta bakardadetik bere semearen misiora bildu zen osorik. Ezin zuen bere semea zaindu. Harekiko berri ilunak zetozkion. Mariak, ama izatetik, ikasle izateko lezioa ikasi behar izan zuen. Maria ikasle, hau du izen berria.

Ikasle bezala gorderik, isilean maitatzen ikasi zuen. Jainkoaren nahiaren lehentasun osoa aitortuz, dena hari begira bizi izan zuen. Jesusen misioari lotu zitzaion barru-barrutik. Mariak erabat sinetsi zuen bere semearen misioan. Besteek azaletik susmatzen zutena, Mariak barrutik ikusten zuen. Bere maitasun ikaslean begirada berezia zeukan, ulertzeko. Jakina!, gure logika eta eskarmentu guztiak baino harutzago doa Mariaren maitasuna. Argi-ilunetan ikasi zuen Mariak ikasle izaten, ikasle bezala ulertzen.

Enztun dugun ebanjelioak ederki erakusten du nola ikasi zuen Mariak bere amatasunetik obedientziaren amatasunerako bidea. Min ematen zioten Jesusen hitzek, baina bazekien bide berriaren zailtasuna bizi behar zuela (*Ik. Ebanj.*). Guk dakigun bezalaxe. Azkenean fedearen amaigabeko prozesuan aurkitzen gara.

Goazen Eukaristia ospatzera. Ikaslearen bihotz apalarekin, gure ezinaren gordintasunarekin; baina Jainkoaren nahia egiteko borondatearekin. Indartu dezagun gure segizioa.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Seigarren eguna  
(Irailak 5 - asteazkena)*

**GURUTZEA: JESUSEN ORDUA, MARIAREN ORDUA**

*Meza*  
**Santa Maria, Jainkoaren Ama**

*Irakurgaiak*

**Mi 5, 2-5a** (IRAKURGAIAK 654)

**Sal 12** (IRAKURGAIAK 655)

**Jn 2, 1-12** (IRAKURGAIAK 724)

*Sarrerako  
monizioa*

Bederatziurreneko seigarren egunean aurkitzen gara. Aurreko egunetan bezala, gaur ere Mariari begiratzen diogu, Jesusen ikasle izaten ikasteko.

Mariak prozesu luze eta zaila egin zuen bere ikasle-lezioa jasotzeko. Ikasi zuen bere misioa gordean bizitzen, bistara azaldu gabe. Gaur gurutzeko une latzean ikusten dugu bere semearen ondoan. **Gurutzea: Jesusen ordua, Mariaren ordua.** Bai, gurutzea izan zen bien ordua, Jainkoak markatutako ordu handia. Neurri gabeko samina bizi izan zuen Mariak bere semea hiltzen eta hilda ikustean. Dena gainera erori zitzaion.

Hala ere, Mariak bazekien zer eskatzen zitzaion. Gorputza eta barua izoztuta geratu zitzaion, baina bere azken indarra konfiantzan eman zuen. Dena Jainkoaren eskuetan utzi zuen, konfiantza ederrean.

Egigun bat fedean. Eta esna gaitezen ospaketara. Mariak babes dezala gure ekintza hau. Has gaitezen kantuan!

*Apaizaren  
agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Jesus Jaunak gurutzeko bere maitasun handitik eman diezagula bakea. Jauna zuekin!**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: ospakizunaren hasieran, Jaunaren errukia eskatu ohi dugu beti. Gaur, Jesusen gurutzeari begiratu behar diogunean, gurutze horren bihotzetik datorkigun errukia eskatzen dugu. Gure ilunpeak eta gure bekatua errukiz beratzen dituen erruki maitalea eskatzen dugu.**

**Izan dezagun uste on.**

- Jesus Jauna, gurutzeko orduan esaneko eta maitale. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Aitaren orduan leial iraun zenuena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria maitasunaren orduan konfiantzara-

ko indartu zenuena. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jauna, Maria Birjinaren oroipena  
ospatzen dugun egun honetan,  
emaguzu, beraren otoitzez,  
parte izan dezagula berak bezala  
zure grazia betean.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen  
irakurgaia.  
Oharpena*

Jaunaren orduaren zain jartzen gaitu lehenengo irakurgai honek. Gero ebanjelioan Jesus eta Maria ere «orduaren» zain ikusiko ditugu. Gurutzea izango da bien ordu nagusia. Entzun dezagun!

**Mi 5, 2-5a** (IRAKURGAIK 654)

*Alleluia  
aurretik*

«Oraindik ez da nire ordua» esango du Jesusek, bai baitzekien gurutzekoa izango zela bere ordua. Mariarena ere bai. Bihotz zabalez jaso dezagun Ebanjelioa. Presta gaitzen alleluiaka!

**Jn 2, 1-12** (IRAKURGAIK 724)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: Jesusen eta Mariaren ordu gurutzekoan, gogoan izan ditzagun sufritzen ari diren guztiak. Beren sufrimenduzko ordu beltzean, jaso dezatela Jaunaren laguntza eta gure solidaritatea. Kanta dezagun:**

**ENTZUN, ARREN, JAUNA.**

- Fededunen alde:  
beren bizitza osoa pobreen aldeko misio bihur dezaten, sufritzen dutenen gurutze-ondoan iraunez.
- Gure herriaren alde:  
gure gizartean bakearen orduak jo dezan, eta denok elka-

rrengana bil gaitezen.

- Gure inguruan beldurrez bizi direnen alde: beren ordu beltzean, behar duten laguntasuna eta hurbiltasuna izan ditzaten, bakean eta lasai bizitzeko.
- Gogorkeria dela eta, era batera edo bestera sufritzen ari direnen alde: bizi duten samin-ekaitzetan Jaunaren presentziak poztu ditzan.
- Arantzazuko Andre Mariaren Bederatziurrena ospatzen ari garenon alde: Mariagandik ikas dezagun Jaunaren eskuetan konfiantzaz bizitzen, nahiz eta bizitzan une zailak izan.

**Entzun, gure Aita errukiorra, eskariok. Zaindu gaitzazu zeure babesaz eta emaguzu konfiantzarako adorea. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Zure Semearen Amaren oroipena pozik ospatzean,  
eskaintzen dizugu, Jauna,  
gorespen-opari hau,  
eta eskatzen dizugu, elkartasun honi esker,  
gehitu dadila guregan  
betiko salbamenaren emaitza.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen,  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiko Horri.

Egintza handiak egin baitituzu  
zure Semearen Amarengan,  
eta beraren bidez salbamena ematen diguzu gaur;  
izan ere Mariak, zuk hala nahita,  
Elizan bizi baitu bere amatasuna,  
zure grazia zintzoki banatuz;  
haren hitzaren aholkua ematen diguzu,  
haren etsenpluz Kristori jarraitzera eragiten diguzu  
eta beraren otoitzez gure bekatuak barkatzen dituzu.

Horregatik,  
eskerrak ematen dizkizugu,  
aingeruekin kantatuz:

*Jaunartze  
ondorengoa*

Eukaristia ospatu ondoren,  
eskatzen dizugu, Jauna:  
Maria Birjinaren oroipena  
ospatu dugun guztiok  
eseri gaitzela egunen batean  
zeruko otorduko mahaian.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Mariak ikasle izaten ikasi behar izan zuen. Fedearen prozesu hori, gurutzeko une nagusian iristen da bere gailurrera. Mariari Jesusen «orduan» iritsi zaio bere «ordua». Gurutzea da Jainkoaren ordu nagusia eta ordu horretan ere Mariak bere misioa bizi behar du. **Gurutzea: Jesusen ordua, Mariaren ordua**, esaten digu gaurko gaiak. Bere semearen heriotzak hutsik uzten dio Mariari barrua. Zerua erori zaio gainera. Jainkoa isildu egin zaio. Eta Mariak orduan erakusten du bere misioaren bihotza, konfiantza. Dena Jainkoaren esku uzten du).*

Joanen Ebanjelioan, bi unetan agertzen da Maria, beti Jesusen eginkizunari lotua. Lehenengoa Kanako ezteietan, harekin lankide diskreto, beti itzalean. Sinetsi eta obeditu: «Egin berak esango di-



zuen». Mariak ondo daki ezin diola bere semeari ezer ezarri. Ezkonberrien beharra zerbitzatzeko du eta Jesusen ordua isilean errespetatzeko du. «Emakume, oraindik ez da nire ordua etorri». Mariarena ere ez (*Ik. Ebanj.*). Kanako ezteietako honen ostean, gorde egiten da, ordua iritsi bitartean.

Maitasunaren obedientzian irauten du gurutzeko ordura arte. Maria da emakume berria, bere amatasuna Joan ikaslea semetzat hartuz garatzen duena. Gurutzeko une honetan beteko dute beren bokazioa, bai Jesusen, bai Mariak. Jesusen hartzen du ekimena. Maria ondoren doakio azkenera arte. Jesus hiltzen denean, bere errailetako umea utzi eta ikaslea hartu behar du semetzat.

Ezin daiteke ordu honetan Mariaren barruan gertatu zena susmatu ere. Ama zen, eta nolako mina! Bihotza hautsi zitzaion barruan.

Bistan da, Jesusen nekaldian, Mariak beregan bizi izan zuela mundu gaiztoaren gaitz-endar oso eta bete. Ilunpearen ordua da! Inork ez bezala sentitzen du bekatuaren lastura. Gaitzaren eta ilunpearen ordua da.

Bihotza hutsik geratu zitzaion bere barruan. Berak ez zuen sekula jakin maitasunik gabe bizitzen, baina une honetan dena izoztu zaio. Gurutzean bere semeari begiratu eta dena beltz ikusten zuen. Zerura begiratu, eta dena huts ikusten zuen. Heriotza baino beldurgarriagoa Jainkoaren isiltasuna. Seme hila altzoan utzi ziotenean, ez zuen negar egiten ere asmatu. Angustia hutsa zen dena. Dena isiltasun egiten zen.

Lehenengo irakurria erreparatzen badugu, oraintxe gertatzen da entzun duguna: «Utzi egingo ditu Jaunak, amak haur egiten arte». Gurutzeko obedientzia ustetsu honetan, Mariak haur egiten du, isilean eta minez, eta munduaren bizitza osoa berritzen du bakean (*Ik. 1. irak.*).

Jesusen ordua, Mariaren ordua: konfiantza hutsaren ordua gorria.

Mariak, bere ordua onartuz, gure orduak betetasunaren eskuetan utzi ditu. «Ordua» nagusiaren seme-alaba gara. Ordua horixe da orain Eukaristian ospatzen duguna. Maitasun betearen ordua. Jainkoak bere dena eman digun ordua bakarra.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Zazpigarren eguna  
(Irailak 6 - osteguna)*

**MARIA ESPIRITUAREN DOHAINEZ JANTZIA**

*Meza*

**Santa Maria, Jaunaren jauretxea**

*Irakurgaiak*

**Ap Eg 1, 12-14**

**Sal 26**

**Jn 17, 11b-19**

**(IRAKURGAIAK 719)**

**(IRAKURGAIAK 90)**

**(IRAKURGAIAK 91)**

*Sarrerako  
monizioa*

Arantzazuko Amaren festaburua hurbiltzen ari zaigu. Mariari begira eta beraren bidez, Jaunaren dohaina gozatzen ari gara, gure batzarra Jaunak bedeinkatzen baitu.

Maria gurutzeko orduan ikusi genuen atzo. Kanako ezteiak gurutzeko mahaian burutu baitziren. Ordu beltzeko Mariaren konfiantzak eta isiltasun minduak, Jaunaren erantzuna hartzen du. Pazkoa Espirituaren emaitza bihurtzen zaio. **Maria Espirituaren dohainez jantzia** ikusten dugu gaur. Eta Espirituak bere barruko galdera guztiak argituko dizkio.

Gu ere gaur, Maria bezala, Espirituaren zain jartzen gara, ospakizunean bilduta. Espirituaren etorrera eskatuko dugu. Eta guregan ere Espirituak argituko ditu bide ilunak eta bilaketaren galdera guztiak. Guri ere Espirituaren dohaina ematen zaigu.

Mariaren inguruan eta beraren babesez, ea ospakizun ederra burutzen dugun. Fedean bat egin eta has gaitezen, besterik gabe, pozez kantuan!

*Apaizaren  
agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Jesus berpiztuak bere Espirituaren dohaina ematen digu bete-betean. Jauna zuekin!**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: Atzo konfiantzaz begiratu genuen Jesusen eta Mariaren ordu hura, gaur Espirituaren ordu bete bihurtzen zaigu. Jesusen gurutzeta Espirituaren Mendekoste bihurtzen zaigu. Espirituak argi gaitzala, errukian uste on izateko. Izan dezagun konfiantza eta eskatu errukia.**

- Jesus Jauna, Espiritu Santuaren iturri agortezina. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure eginkizunerako Espirituaz indartzen gaituzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria Espirituaren dohainez bete zenuena. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko Jauna, era miragarrian eratu diozu  
bizilekua zure Semeari  
Andre Mariaren sabel garbian;  
egizu, gurtu zaitzagula  
Espiritu Santuarengan eta egian,  
bataioko dohainari zintzo jarraituz,  
gu ere zure bizileku argitsu bihur gaitezen.  
Zure Seme.

*Lehen irakurgaia.* Maria Espirituaren zain ikusten dugu Jesusen ikasleekin batera. Espiritu honek argituko dio bere barrua oso-osorik. Eta argitasun horretan argitzen da *Oharpena* Eliza osoa, gu ere bai.

**Ap Eg 1, 12-14** (IRAKURGAIK 719)

*Alleluia aurretik*

Jesusek, azken afarikoan, otoitz egiten du bere ikasleen alde. Jesusek ez ditu bakarrik utziko. Beren misioan zainduko ditu. Bihotzak gora, Ebanjelioen liburua gora eta kantuz jasoko dugu maitasunaren hitza!

**Jn 17, 11b-19** (IRAKURGAIK 91)

*Jainko-herriaren otoitza*

**Senideok: Jainkoak bere Espiritua eman digu maitasun handiz. Eska dezagun Espiritu horren argia gizon-emakume guztientzat; eta guretzat pobreen aldeko lana egiteko adorea. Kanta dezagun:**

**GURE OTOITZA ENTZUN, JAUNA.**

- Otoitz egin dezagun munduko herri guztien alde... Otoitz, gerran dabilzan herrien alde... (*Isil une luze xamarra*)...
- Otoitz egin dezagun gure Euskal Herriaren alde... Errukiaren orde, gogorkeria bizi dutenen alde...

- Gogoan izan ditzagun eliz elkarte guztiak, berritzeko Espiritua izan dezaten...
- Otoitz egin dezagun sufritzen duten guztien alde... Gogoa izan ditzagun besteren injustiziagatik sufritzen dutenak...
- Egigun otoitz oinarriko duintasuna aitortzen ez zaienen alde... Sida edo droga dela eta errukarri aurkitzen direnen alde... Tratu txarrak bizi dituzten emakumeen alde...
- Egigun otoitz geure alde... Gure senide eta adiskideen alde... Otoitz, gure hildakoen alde...

**Errukiz onartzen gaituzun Aita ona, begira iezaiozu Jesu Kristoren piztuerari eta emaezu zure Espiritu Santua, eskatzen dizutenei. Hala eskatzen dizugu Mariaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Hartu, Jauna,  
Maria Birjinaren oroipena eginez  
aurkezten dizkizugun dohainak,  
harengan otoitz eta gorespen eredu  
eman baitiguzu;  
emaguzu bera bezala bizitzea  
Zuri egiazko oparia eskaini ahal izateko.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen,  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiko Horri.

Zeuretzako bizilekua prestatu baituzu guregan,  
Espiritu Santuak garbitu eta argitutako bizilekua  
eta zure presentziaz santutua.

Maria Birjina,  
gizakundearen mesterioaz  
eta bere fedezko menpetasunaz,  
zure aintzaren bizileku berezia izan zen,  
Espirituak bertute guztien ederrez  
apaindu zuen urrezko etxea,  
egiaren distiraz argituriko jauretzea,  
graziaren ibaiek poztutako hiri santua,  
Itunaren kutxa,  
bere barnean gordetzen duelarik  
lege berriaren Egilea, Jesu Kristo, gure Jauna.

Honen bitartez, zure handitasuna  
aitortzen dute aingeru eta goi-aingeruek,  
beti pozez elkarturik zure aurrean.  
Onar ezazu, Jauna, haien gorespenekin bat egin ditzagula  
guk ere geure kantu-hotsak:

**Jaunartze  
ondorengo**

Eukaristia honekin indarturik,  
egizu, Jauna, zerbi zaitzagula biziera garbiz,  
eta, Mariaren etsenplua jarraituz,  
maita zaitzagula gure anai-arrebengan  
eta Mariarekin batera handietsi dezagula  
zure handitasuna, bihotz osoaz Zu goretsiz.  
Jesu Kristo.

**Homilia**

*(Gaurko gaiak Pazkoaren betetasunera garamatza. Maria, bere semearen piztueraren berri entzunda, Espirituaren zain ikusten dugu afaltokian. Eliz elkartean duen misioa betetzen ari da. Espiritu horrexek argituko dio barrua. Gurutzeko iluntasunek eta galderek erantzun betea jasoko dute Espirituaren testigantza. Espirituak eramango du oraindik ere fedearen obedientzia bizitzera. Jesusen ama izan denak orain Joanen ama izan behar du, eliz elkartearen ama, gure ama.).*

Jesus berpiztu zuen Aitak. Eta Mariak berriro bere fedearen besoe-tan sentitu zuen. Ikasleek ematen zuten berpiztuaren testigantza bakoitzarekin nola pozten ote zen Maria! Hasierako bokazioa eta hasierako argia, ugaldtu egin zitzaizkion, bete-betea ugaldtu.

Pazkoaren beteian ikasleekin batera Espirituaren zain aurkitzen du-gu Maria. Jesusen ageriko bizitzan agertu ez zen Maria, hemen aurkitzen dugu. Ikasleen ondoan egotea tokatzen zaio, bere ama-tasun berriaren eginkizuna burutuz. Bere isilean berriro ere haur egiten ari da (*Ik. 1. irak.*).

Eta hemen Mariak Espirituaren edertasun argitzailea jasotzen du. Lehen bokazio baterako Espiritua izan zuen, gaur beste baterako, edo bokazio beraren beste une baterako.

Kontzientzia berri bat ematen zaio Mariari. Lehen airean geldituta-ko galdera askoren erantzuna jasotzen du. Bere seme Jesusen bi-zitzako pasadizo eta portaera «ilun» asko argitzen zaizkio. Jesusen sorrera. Jesusen urteetako isiltasun gordea. Jesusekiko ama-harremana alde batera utzi beharra. Beti gordean iraun beharra. Gu-rutzeko bide mingarria... Galdera askoren erantzuna jasotzen du bere bihotz fededunear. Lehen fedez onartuak orain Espirituak ar-gitzen dizkio. Orain ere, lehen bezala, fedearen obedientzian bizi behar du.

Maria kristau-elkartearen kide bihurtzen du Espirituak. Erreinuaren elkarte eragilea sortzean, hantxe dago Maria. «Jaunaren Ama» dei-tu zioten kuttuntasunez eta begirunez. Gerora, elkarreak ongi uler-tu zuen Maria Jesusen «sortzailea» baino askoz gehiago zela.

Azken afariko Jesusen otoitzak eskatzen duena babestuko du Ma-riak bere obedientzia horretan. Eliz elkartearen batasuna zainduko du. Bera izango zaio ama. Berak borrokatuko du gaitza (*Ik. ebanj.*).

Jesus dagoen lekuan, han Maria. Espiritu Santua dagoen lekuan, hantxe Maria. Eliza dagoen lekuan, Maria zalantzarik gabeko erre-ferentzi puntu nagusia.

Eukaristia ospatzera goaz. Mariarekin batera mendekoste berria biziko dugu. Hemen ematen baitigu Jaunak Espirituaren betetasu-na.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**  
**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Zortzigarren eguna  
(Irailak 7 - ostirala)*

**Maria Pazkotik piztuerara**

*Meza*

**Maria Birjina, salbamen iturria**

*Irakurgaiak*

**Apk 22, 17. 20-21** (IRAKURGAIAK 858)  
**Sal 41** (IRAKURGAIAK 858)  
**Jn 15, 5. 7-14** (IRAKURGAIAK, *ez da agertzen*)



*Hasierako  
monizioa*

Maria Jesusekin berpiztua aitortzen dugu. Mendekosteko Espirituak obedientiaren maitasun isilean mantendu zuen Maria. Jesusen itzulerako espero izan zuen. Ez zuen, hala ere, beste munduko mirari builosorik izan. Ez zen hori izan Mariaren bokazioa eta misioa.

**Maria Pazkotik piztuerara.** Horixe dugu gaurko gaia. Nolako barne-bizitza bizi izan ote zuen Mariak, Jesus hil eta gero. Pizturik sinesten zuen bere semea, eta bere bizitzako zenbat pasadizo gozatu ote zituen bere bihotzean! Baina, Jesus berpiztu ostean, ez zitzaion bere eginkizuna aldatu: bizia ematea izan zuen bere eginkizuna. Maitatuz eta bitarteko izanez, bizia eman guztiei!

Jainkoaren Hitza entzunez, Eukaristiako maitasuna ospatuz, Mariaren hurbiltasun fededuna sentituko dugu.

Mariaren babesean, ekin diezaiogun fede beroz gure ospakizunari. Has gaitezen kantuz!

*Apaizaren  
agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Berpizturik, Maria berpiztu zuen Jesus Jaunak berpiztu zaitzatela. Jauna zuekin!**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: gure ospakizunari hasiera emateko, beti Jaunaren errukitara jotzen dugu, barrua berpizten digun erruki ederrera. Gaur ere izan dezagun uste on eta utzi dezagun gure bekatua Jaunaren errukiaren eskuetan, berak emango digu eta bizi berria. Eska dezagun bihotz berria maitasunerako.**

- Jesus Jauna, berpizturik bizi-iturri zaituguna. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, beti gizakien bidean zabiltzana. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria zeure ama berpiztu zenuena. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Jainko gure Aita,  
Salbamen iturburua den Jesu Kristo, zure Semea,  
guri emateko bide egin zenuen Maria Birjina;  
haren oroipena pozez beterik ospatzen dugula,  
eskatzten dizugu Espiritu Santuaren  
fruitu oparoak eman ditzagula,  
bizi-iturri horretatik atergabe edanez.  
Zure Seme Jesu Kristo.

*Lehen irakurgaia.* Maria da Elizaren bihotza. Orain entzungo dugun testu honetan, Mariaren deia entzungo dugu: «Zatoz, Jesus Jauna!». Etorreraren desioa, eskari egiten da fedearen bihotzean. Entzun arretaz!

**Apk 22, 17. 20-21** (IRAKURGAIK 858)

*Alleluia aurretik*

Mahatsondoren parabolak ederki erakusten du nolako batasuna bizi izan zuen Mariak Jesus berpiztuarekin. Ebanjelio-liburua jaso, bihotzak erne eta aleluiaka presta gaitezen Jesusen hitzak entzuteko! Zutik!

**Jn 15, 5. 7-14** (IRAKURGAIK, *ez da agertzen*)

*Jainko-herriaren otoitza*

**Senideok: munduko injustizia guztiak gogoan ditugula, eska ditzagun mundu zuzen bat egiteko behar ditugun dohai-nak. Maria lagun hartuta, egin dezagun otoitz, kantatuz:**

**ENTZUN, JAUNA, ESKATZEN DIZUGU.**

- Munduan bizi den Eliza osoaren alde: bere ahalegin guztiaz pobreen kontrako injustizia salatu eta Jaunaren erreinua eraikitzen saia dadin.
- Ezbeharra edo pobrezia bizi duten herri minduen alde: ez dezaten mundu berri baten esperantza galdu eta beren borrokan aurrera egiteko konfiantza izan dezaten.

- Otoitz berezia egin dezagun gure herriko bakearen alde: eguneroko kaltetuek gure ardura jaso dezaten eta gure harremanak zuzenak izan daitezen.
- Esperantzaren eragina galdu dutenen alde: Mariak bezala, Jesusi atxikita, Jaunaren etorreraren dohaina itxaron dezaten.
- Arantzazuko Amaren oinetan elkaturik gaudenon alde: ospatzen ari garen Eukaristia honek, gure barrua eta gure harremanak berpiztu ditzan.

**Gure Aita errukiorra. Zure eskuetan uzten dugu gure gizarteko eta munduko pobreen zoria eta bizitza. Emaguzu mundu zuzena egiteko Espiritua. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Egin itzazu, Jauna, salbamenezko sakramentu,  
Maria Birjinaren oroipena eginez  
pozez ekarri dizkizugun dohainok,  
haren eskariz egin baitzuen zure Semeak  
bere lehen ezaugarria, ura ardo bihurtuz.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen,  
Zuri, Aita guztiz santu horri,  
nonahi eta beti eskerrak ematea  
eta zure handitasuna hots egitea,  
Maria Birjina ospatzen dugun egun honetan.

Berak, Espiritu Santuaren itzalean,  
erne baitzuen harrigarriro Hitz gizon egina,  
Jesu Kristo, gizon-emakumeen  
elkartasun- eta maitasun-egarria

asetzen duen ur bizien iturria.

Elizak ere, era berean,  
eskaintzen die fededun guztiei  
Kristoren saihetsari darion  
salbamen-iturri santua,  
sakramentuetan emankor eta garbi  
agertzen zaigun iturria,  
bertan sinesmenez edaten duten guztiak  
Epirituaz bete daitezten  
eta Kristo Salbatzailea aurki dezaten.

Honen bitartez,  
zure handitasuna aitortzen dute aingeruek,  
beti pozez elkarturik zure aurrean.  
Onar ezazu, Jauna,  
haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere  
geure kantu-hotsak:

*Jaunartze  
ondorengo*

Zeruko otordu honetan parte hartzean, Jauna,  
pozez edan dugu Salbatzailearen iturrietan;  
emaguzu, Maria Birjinaren oroipena  
ospatzen dugun guztioi,  
hartu dugun sakramentu hau  
izan dadila guretzat  
betiko bizitzaraino darion iturburua.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Jesusen Pazko-Piztuerak poza ekarri du Mariaren bihotzera. Gaurko gaiak Jesusen pazkotik Mariaren piztuerara bitarteko biziera aztertu nahi du. Ez ezer berezia gertatu zelako, baizik betiko misioa bizitzen sumatzen dugulako. Isilean maitatu eta isilean bizia sortu. **Maria Pazkotik piztuerara**, dio gaurko gaiak. Jesusekin bizi zuen barne-lotura benetan handia zen. Ez da esperientzia harrigarrien kontua, isileko maitasunaren kontua baizik. **Maria**, berpiztua aitortzen dugu, Jesusekin bat eginda, Aitaren altxoan).*

Jesusen piztuerak lehengo bakardade baketsura poza ekarri dio Mariari. Poz horrek ez zuen, ordea, gizarteko bizitzara eraman. Berea isilean maitatzea zen. Zenbatek galdetzen zioten Jesusi buruz! Joanekin hitz egiten zuen, Maria Magdalenarekin... hainbeste zeukan barruan gordeta!

Mariari buruz berriro esan behar: barrutik bizi zen. Ez zuen esperientzia harrigarrik behar, sakontasun mistiko paregabe bizi-tzeko. Maria mirari harrigarriekin lotzeak ez digu on handirik ekarri. Bera Jesusengan zegoen, Jesusi barrutik lotuta, harekin bat eginda. Aihenak mahatsondoarekin bezala. Jesusek mahatsondoaren parabolaren esandakoa bete-betean gertatzen da Mariaren bizi-une honetan. Komunikazio oso eta erabatekoa bizi zuten. Ebanjelioan entzun duguna Mariarengan haragi egina, egia bihurtua, ikusten dugu (*Ik. ebanj.*).

Orduan gehienek bezala, ikasleek bezala, Jesusen berehalako itzulerara esperoko zuen. Baina ez desioaren espektatiba egarrituan, fedezko harremanak ematen zion egarri baketsuan baizik. Berak ez zeukan jakinminik, ordua noiz eta gauzak nola izango ote ziren zertorenean.

Lehenengo irakurra ere nolako egokitasunez biltzen den Mariaren jarrerara! Mariak Jesusekin egon nahi du. Haren etorrera maite du bere grina guztiaz. Mariaren jarrera maitalea, garrasi handi bat da: «Zatoz, Jesus Jauna» (*Ik. 1. irak.*).

Jesusen piztueran berpiztua aitortzen dugu Maria. Ama-seme berpiztuen pazkoko besarkada. Artisten irudimenak era askotara irudikatu du Mariaren zeruko bizitza. Nolako maitasunez begiratu zion Aitak, eta nolako uste onez etzan ote zen Maria Aitaren altzoan, atsedean gozoan!

Mariak onez bete zuen bere eginkizuna lurrean; baina piztuerak ez dio bere misioa bukatutzat eman. Eta misioa bat bera da: bizi ematea! Bizi eman, ez baina sufrirituz, sinetsiz eta obedituz; orain maitatuz eta bitarteko izanez. Bitarteko bakar Jesusekin bat eginik da bitarteko bere seme-alaben alde.

Eukaristia ospatzen jarraitu behar dugu. Ikusi eta gozatu dugun misterioa benetako elkartzun bihurtzen du Eukaristiak. Mahatsondoan txertatzen da gure bizitza pobrea eta jainkozko emaitzak ematen ditugu. Mariak bezala.

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

*Bederatzigarren eguna  
(Irailak 8 - larunbata)*

**MARIA, BIDELAGUN ETA AMA**

*Meza*  
**Mariaren jaiotza egunekoa**

*Irakurgaiak*

**Is 9, 2-4. 6-7**

**Sal 112**

**Lk 1, 39-45**

**(IRAKURGAIAK 717)**

**(IRAKURGAIAK 718)**

**(IRAKURGAIAK 723)**

*Hasierako  
monizioa*

Bederatziurrenak azken eguna du gaur eta, gainera, Ama Mariaren jaiotza ospatzen dugu. Bihar gure Amaren festaburua ospatuko dugu. Makina bat gauza eder entzun dugu egun hauetan. Makina bat konpromiso berritu dugu Mariaren ispiluan.

Gaur, Mariari begiratzen diogu gure **bidelagun eta Ama** bezala. Mariarengan goiko ondasun betea eman zaigu; baina, bide batez, ondasun horrentzako erantzuna ere eman zaigu ama berarengan. Mariak laguntzen digu gure sinesmenaren bidean. Maria bidelagun egiten zaigu gure fede-prozesuan.

Egunero-egunero Mariak mundu berri baten gogoa eta grina sortu digu. Eta gaur, beraren jaiotza eguna ospatzean, mundu berri baten hasiera ospatzen dugu.

Maria lagun dugula, ekin diezaiogun gaurko Eukaristiaren ospakizunari, fedean bat eginik.

Kanta dezagun!

*Apaizaren  
agurra*

**Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.**

**Gure ibilbidean Maria ama eta bidelagun eman digun  
Jauna izan bedi zuekin.**

*Damu  
otoitza*

**Senideok: Mariaren jaiotza-eguneko ospaketa hau, barrura sartu eta geure errealitatearen bihotzetik hasi behar dugu. Bekatariak gara. Jo dezagun Jaunaren errukitara, Mariaren bihotz garbia guztiontzat eskatuz. Gure ibilbidea goza dezala Jaunaren errukiak.**

- Jesus Jauna, emakumearen seme egin zinena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, gure ezinaren bideetan bidelagun zatozena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria zeure Ama gure amatzat eman zeniguna. Erruki, Jauna.

*Otoitza*

Egin dezagun otoitz.  
Emaguzu, Jauna, zure zerbitzarioi  
zeruko graziaren dohaina,  
Maria Birjina zure Semearen Ama egin zenuenean  
gure salbamenaren hasiera izan genuenok  
haren jaiotza ospatzean bake osoa iritsi dezagun.  
Zure Seme.

*Lehen*

*irakurgaia.* Profetak garai berriak adierazten dizkio hondatuta eta erorita dagoen herriari. Bere bide ilunean argi berezia piztu zaio. Gure bideari ere argi berezia piztu zaio, Maria lagun baitatorkigu.

**Is 9, 2-4. 6-7** (IRAKURGAIK 717)

*Aleluia  
aurretik*

Mariak bere bisitaz dena pozten du. Gu ere pozten gaitu. Gu ere salbazioaren eramaile bihurtzen gaitu, goazen tokira goazela. Berri Onari dagokion festa egin dezagun: Ebanjelio-liburua jaso, intzentsuz lurrindu eta aleluia jasoko dugu Hitza!

**Lk 1, 39-45** (IRAKURGAIK 723)

*Jainko-  
herriaren  
otoitza*

**Senideok: Maria otoitz-lagun harturik, jo dezagun Jaunaren errukitara. Eska ditzagun Berri Onaren dohainak munduko pobreentzat. Kanta dezagun:**

**ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.**

- Maria Ama duen Elizaren alde:  
Jesusen misterio askatzailea zabal dezan munduan, gizon-emakumeen ezinak poztuz.
- Munduko herri pobreen alde. Gure herriko bakearen alde:  
Arantzazuko Amaren irudi txiki honek gure bake-bideei laguntza eman diezaien.



- Sufritzen ari diren familien alde:  
sufritzen dutenen bidea Mariaren ama-itzalak gozatu eta indartu dezan.
- Itxaropenik gabe bizi diren gazteen alde:  
mundu zuzenago baten itxaropenez, lan egiteko eta aurrera begiratzeko ilusioa izan dezaten.
- Amaren festa pozik ospatzen ari garenon alde:  
Mariaren jarrerak geuretu ditzagun eta Jesusen segizioan ikasle leial izaten ikas dezagun.

**Eskerrak, Aita ona, Mariaren laguntza eta babesa ematen dizkiguzulako. Beraren irakaspenaz argiturik, bizi gaitzela Berri Onaren pozetan. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*Oparigaien  
gainekoa*

Betorkigu lagun, Jauna,  
zure Seme bakarra gizon egina:  
bere jaiotzan amaren birjintasuna kendu ez  
baizik-eta sagaratu egin zuenez gero,  
Berak atera gaitzala bekatutik  
eta zure gogoko egin dezala gure eskaintza.  
Jesu Kristo.

*Prefazioa*

Egoki da, bai, eta zuzen  
Zuri eskerrak ematea  
eta bedeinkapen eta alabantzazko  
gorazarrea eskaintzea,  
Jainko ahalguztidun betiko horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Berak, munduaren pozbide izateko,  
Maria Birjinaren sabel garbian  
pozez sortu nahi izan zuen.

Maria, Semearen gurutze ondoan  
samin ikaragarriak sufritu ondoren,  
Zuk poztu zenuen piztueraren itxaropenaz.

Apostoluekin otoitzean ari zela,  
sutsu eskatu zuen eta konfiantzaz itxaron  
pozaren eta bakearen Espiritua.

Eta orain, zerura jaso dagoelarik,  
ama-maitasunez pozten ditu  
fedez dei egiten dioten guztiak,  
Jaunaren egun argitsua piztu bitartean.

Horregatik,  
aingeru eta santu guztiekin,  
zure aintza goستن dugu, kantatuz:  
Santu...

*Jaunartze  
ondorengo*

Jaunartze honen bidez  
indartzen duzu, Jauna, zure Eliza;  
emaiozu poz betea  
Maria Birjinaren jaiotegun honetan,  
jaiotza horrek ekarri baitzion munduari  
salbamenaren itxaropena eta egunsentia.  
Jesu Kristo.

*Homilia*

*(Azken eguneko gaiak Bederatziurren osoaren ondorioa edo izan beharko luke. Bere fede-prozesua burutzen ikusi dugun emakume nazaretar hau, Jainkoak deitua eta hezia, Mendekosteko Espirituz betea, emakume hau **bi-delagun eta ama** dugu fede-prozesua bizi dugun kristauok. Jesusi bizia eman zionak, orain ere bizia emateko misioan jarraitzen du gurekin. Mariak Jaunaren deiari eman zion erantzuna, guregan ere Jaunarenganako erantzun bihurtzen da. Mariarengan eman zaigu dohaina. Mariarengan ematen zaigu dohainari eman beharreko erantzuna).*

Maria, Jesusen ama eta gure ama. Elizaren ama deitu izan dugu. Mariaren amatasuna bi eratara gauzatu baitzen: Jesusi bizia eman ez eta ikasleari bizia eman ez. Zein bati zein besteari bizia eman ez. Mariak leku berezia dauka salbamenaren historian.

Lehenengo irakurgaiak ireki dizkigun zerumugak Mariarengan ireki zaizkigu guri. Gaitzaren pisu astuna kendu zaigu bizkarretik. Mariarengan erregalatu zaigu mundu berria. Dohainaren agerleku dugu Maria (*Ik. 1. irak.*).

Maria da Jesusen ikasleen elkartearen ama. Maria da Eliza. Bera da Itun Berriak aipatzen duen Emaztea. Zer dago honen guztiaren atzean? Askotan uste duguna baino gehiago: Jainkoak salbamena eskaini digula, dohain eta doan eman ez; baina, bide batez, bere eskaintzarekiko erantzuna ere berak eman digula, Espirituak hartutako Mariaren bidez.

Gutako bakoitzak bere prozesua egin behar du Jainkoaren dohainari erantzuna eta lekua emateko. Baina gure prozesu guztien bihotzean Mariaren erantzun fededuna dago. Maria da Elizaren bokazio betea. Gu guztioi egin zaigun deiaren helburua Mariarengan daukagu.

Mariak laguntzen gaitu Ebanjelioa onartzeko bidean. Berak erakusten dizkigu bihotzeko jarrera oinarritzkoak: barrua irekitzea dohainari, prestutasuna, esker ona... Berak esaten digu Berri Ona onartzeko Jainkoarekiko harremana behar dugula, gure ulermenaren jarduera baino gehiago. Bihotz garbia behar dugula Jesusen bidean sartzeko.

Maria dugu gure ikasle-bidearen ama. Maria dugu gure bideetan bidelagun. Berak eramaten gaitu Berri Onaren errailetara, han Jainkoaren dohaina pozez bizi dezagun. Erreinua bere onean ulertu. Bihotz xumez prantatu. Bizitza osoa Berri Onaren zerbitzura eman. Maria dugu irakasle, bidelagun eta ama.

Eta Mariaren bokazioa, dohainaren argitan, gure bokazio bihurtzen da. Gu ere gizartera itzultzen gara gure senideak bisitatzerako. Berri Onaren dardara pozgarria eramango diegu pobreei eta estu daudenei. Berri Onaren jauzia eragingo dugu zapalduen bihotzean (*Ik. ebanj.*).

Eukaristia ospatzera goaz. Mariaren fedean jasoko dugu Jainkoaren dohain betea. Mundu berri baten egunsentian gaude. Jainkoak dei egin digu, eta mundu berria eraikitzen ari da.



**2018**

**“ZURE ARANTZ  
HORREN BABES”.**

**Mariarekin  
Jesusen bidean**

**AURKIBIDEA**

<i>Eguneroko gaiak</i> .....	5
<i>Kontutan hartzekoak</i> .....	7
<i>Lehenengo eguna</i> .....	9

Gaia: MARIA, BARRUTIK BIZI ZEN EMAKUMEA  
Irakurgaiak: 1 Sm 1, 24-28; Lk 1, 46-56  
Meza: Andre Mariaren betikoa 2 (MEZA LIBURUA 617)  
Prefazioa: Jasokundekoa (MEZA LIBURUA 543)

<i>Bigarren eguna</i> .....	15
Gaia: MARIA, JAINKOAK DEITUA	
Irakurgaiak: Is 7, 10-14; Lk 1, 26-38	
Meza: Andre Mariaren betikoa 1 (MEZA LIBURUA 616)	
<i>Hirugarren eguna</i> .....	21
Gaia: MARIA ETA JAINKOAREN SEKRETUA	
Irakurgaiak: Sir 3, 19-21.30-31; Ef 1, 3-6.11-12; Mt 1, 18-23	
Meza: Maria Birjina, goi-arduraren Ama (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Laugarren eguna</i> .....	27
Gaia: MARIA, NAZARETEN LANGILE ETA POBRE	
Irakurgaiak: Sir 3, 3-7; Mt 2, 13-15.19-23	
Meza: Maria Birjina, pozaren Ama (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Bosgarren eguna</i> .....	33
Gaia: MARIA IKASLE IZATEN IKASTEN	
Irakurgaiak: Gn 12, 1-7; Mk 3, 31-35	
Meza: Maria errukizko erregina eta ama (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Seigarren eguna</i> .....	39
Gaia: GURUTZEA; JESUSEN ORDUA, MARIAREN ORDUA	
Irakurgaiak: Mi 5, 2-5a; Jn 2, 1-12	
Meza: Santa Maria, Jainkoaren Ama (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Zazpigarren eguna</i> .....	45
Gaia: MARIA ESPIRITUAREN DOHAINEZ JANTZIA	
Irakurgaiak: Ap Eg 1, 12-14; Jn 17, 11b-19	
Meza: Santa Maria, Jaunaren jauretxea (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Zortzigarren eguna</i> .....	51
Gaia: MARIA PAZKOTIK PIZTUERARA	
Irakurgaiak: Apk 22, 17. 20-21; Jn 15, 5. 7-14	
Meza: Maria Birjina, salbamen iturria (Mariaren Mezak - Itzulpen pribatua)	
<i>Bederatzigarren eguna</i> .....	57
Gaia: MARIA, BIDELAGUN ETA AMA	
Irakurgaiak: Is 9, 2-4. 6-7; Lk 1, 39-45	
Meza: Irailaren 8koa (Andre Mariaren jaiotza)	